


Vuelta'96

INDURAIN ETA ONCE BIHURTU DIRA VUELTA KO FAVORITO ARGIAK ATZOKO ETAPAREN OSTEAN

Hasi da aukeraketa

Laurent Jalabert frantziarrak irabazi zuen atzo Cuenca eta Albacete artean korritutako hirugarren etapa. Ezusteko etapa gertatu zen, zalantzarik gabe, 16. kilometroan tropela bitan zatitu eta favorito batzuk Vuelta galdu egin baitzuten. ONCE eta Indurain izan ziren garaileak.

Pello Aiestaran / Donostia




Miguel Indurainek eta ONCEk (irudian Iñigo Cuesta) ezin hobeto aprobetxatu zuten atzoko eguna.

EFE

zoren bat izan zuelako, eta konturatzerako Fabio Baldato agertu zen lehenengo postuan. Urrunegi. Atzetik Laurent Jalabert eta Lombardi etorri ziren, eta ozta-ozta izan bazen ere, biek gainditu zuten MG etxeko italiarra. Modu honetan, Jalabertek Tourraren ondorengo lehen garaipena lortu zuen. Eta bide batez, lider jarri zen segundo batzuk gehiago urratuz bonifikazioetan. Atzokoaren ondoren, Vuelta Indurain eta ONCEren arteko borrokara mugatzen dela dirudi. X

4. Etapa ALBACETE-MURTZIA (166,5 Km.)



Vueltaren bandera

• XABIER USABIAGA •

ONCE taldeak zein itzuli korritzen ari diren ikustarazi zigun atzo. Erakutsi zuten nagusitasunaz gain, ibilbide gorritsuaren artean errepidea horiz zipritindu baitzuten. ONCE taldeak eginikoa azpimarratzekoa da. Molde asko hautsi zituzten, eta zapuzten batera errazak ez direnak gainera.

Lehenbizikoa horrelako ihesaldiek arrakasta lortzeko duten aukera minimoa. Ez da ohikoa, ezta ezinezkoa ere. Normalean eta atzoko moduan, tropela bitan banatzen eta egindako esfortzuak etekina (denbora diferentzia) erakusten ez duenean, iheskideek etsipena izaten baitute bisitari.

Aurrealdekoek erreferentzia helmugan dutelako, urruti beraz. Eta atzealdekoek, berriz, erreferentzia gertu, begi bistan dutelako. Atzo ideia hori pikutara bota zuten ONCEkoek.

Bestea, bigarrena, gure filosofia. Etapa ikusgarriak eta erabakigarriak ez dira bakarrik erlojupekoak eta mendikoak. Atzo, indarra, kementa, estrategia, trebezia, aztitasuna eta koordinazioa lagun izan ziren. Ezaugarri horiek guztiak lanean batera ikustea, aparta izan zen. Abanikoan, indarra ezinbestekoa da errelebo onak eta zuzenak emateko. Kementa eta azitia izateak bertan sartzeko aukera ematen dute.

Trebeziak abanikoan beti erraza ez den orekari eusteko balio du. Aurreko ezaugarri guztiok koordinazioz lagundu behar dira eta lehenago, hotelean, guztia estrategia batez prestatu behar da. Eta hori guztia egiten ONCEkoak jaun eta jabe dira. Txirrindulariek ahala dutelako eta zuzendariak jarrera ausarta duelako.

Amaitzeko datu bat. Iaz Jalabertek irabazi zuen lehenbiziko etapa hirugarrena izan zen eta elastikoa ere etapa berean jantzi zuen. Iaz ONCEkoen aurkari bakarra Olano izan zen. Atzokoaren ostean aurkariak Indurain izena du. Gauza bera egingo al diote?



irabazlearen soslaita

JALABERT

X **Jaioteguna:** 1968-11-30, Mazanet (Frantzia).

X **Debuta:** 1989an.

X **Taldeak:** Toshiba (1989-92) eta ONCE (1992-96).

X **Palmaresa:** 76 garaipen lortu ditu debuta egin zuenetik; aurten 13 erdietsi ditu.

X **1989:** Armoriqueko Tourreko etapa bat eta sailkapen nagusia. Limousingo Tourreko etapa bat.

X **1990:** Paris-Bourges lasterketako etapa bat eta sailkapen nagusia.

X **1991:** Dunkerkeko Lau Egunetako etapa bat.

X **1992:** Tourreko etapa bat. Euskal Bizikletako etapa bat.

X **1993:** Vueltako bi etapa.

X **1994:** Vueltako zazpi etapa. Euskal Herriko Itzuliko etapa bat.

X **1995:** Vueltako sailkapen nagusia eta bost etapa. Tourreko etapa bat. Zornotzako Sari Nagusia. Milan-San Remo klasikoa.

X **1996:** Valentziako Itzulia. Paris-Niza. Midi Libre. Route de Sud. Euskal Herriko Itzuliko etapa bat.

sailkapenak

Etapa

1. Laurent Jalabert (ONCE) 3.23.40
2. Giovanni Lombardi (Pol) d.b.
3. Fabio Baldato (MG) d.b.
4. Steffen Wesemann (Tel) d.b.
5. Dimitri Konixev (Aki) d.b.
6. Massimo Apollonio (Scr) d.b.
7. Sergei Smetanin (S. Cla) d.b.
8. Bert Dietz (Tel) d.b.
9. Jurgen Werner (Tel) d.b.
10. Davide Rebellin (Pol) d.b.
11. Bobby Jullich (Moto) d.b.
12. Angelo Canzonieri (Sae) d.b.
13. Jeroen Blijlevens (TVM) d.b.
14. Gerd Audehm (Tel) d.b.
15. Roberto Pistore (MG) d.b.
16. Eleuterio Anguita (MxO) d.b.
17. Stefano Zanini (Gew) d.b.
18. Valerio Tebaldi (Lot) d.b.
19. Luca Colombo (Aki) d.b.
20. Alvaro Galdeano (Eus) d.b.

Orokorra

1. Laurent Jalabert (ONCE) 12.11.20
2. Fabio Baldato (MG) 05era
3. Giovanni Lombardi (Pol) 10era
4. Jurgen Werner (Tel) 17ra
5. Steffen Wesemann (Tel) 22ra
6. Dimitri Konixev (Aki) d.b.
7. Bobby Jullich (Moto) d.b.
8. Laurent Dufaux (Lot) d.b.
9. Angelo Canzonieri (Sae) d.b.
10. Juan Arenas (Lot) d.b.
11. Roberto Pistore (MG) d.b.
12. Stefano Faustini (Aki) d.b.
13. Jeroen Blijlevens (TVM) d.b.
14. Luca Pavanello (Aki) d.b.
15. Sergei Ustxakov (Pol) d.b.
16. Miguel Indurain (Ban) 27ra
17. Bert Dietz (Tel) 28ra
18. Luca Colombo (Aki) d.b.
19. Davide Rebellin (Pol) d.b.
20. Bo Hamburger (TVM) d.b.